



61
ZENBAKIA
98KO URTARRILA

gasteiz

gasteizko euskaldunon aldizkaria

gurea delako



HITZ ETA PITZ.....

MERKEALDI AK

1998ko urtarila

2

IRITZIZ BLAI

- senideak, eguberri tristeak
- geu gasteiz hilabetekaria, haize berriak

3

ZURRUMURRUAK ETA HITZ ETA PITZ

4

BERTSOAK

- ainhoa romano, falta direnei

5

KALEA MINTZO

agur eta zorion!

9

KULTURA

LITERATURA

Ajuria Eneako Ituna mezubideetan

ETNOGRAFIA

Ahozko kontaketak, kultur islada

DURANGOKO AZOKA

Araba ere berton present

16

MUSIKA

Benito Malasangre

Kritika: Ten Years After

19

KIROLAK

Euskaraz ere: Euskarri Kirol Taldea eta Geurekin Mendira

27

ELKARRIZKETA

Gasteizko aurreneko drag-queena

30

KOMIKIA



Ainhoa Romano

DOINUA: aita izena

FALTA DIRENEI



Egun hauetan sentimenduak
izan ditugu dohainik
bereztasun ugari eta
galdetzen dut nik zergatik
urtea hasi berria dago
baina ez dut itxaropenik
Gabon guztitan gertatu legez
aulki asko daude hutsik
ta zoritxarrez denok dakigu
hala daudela aspalditik.

Urte amaian berri txar latza
iritsi zen guregana
gure irrifarrik goxoena
mendian zaigula joana
Txoriek ere gogoan dute
gure Irati lastana
denon negarrak bete egin du
loreekin mendi dana
eta jaio den lore ederrenak
zure izena darama.

ZUZENDARIA: ESTITXU BRIÑAS ERREDAKZIO-BATZORDEA:

LEIRE LOPEZ DE ABERASTURI, ISMAEL DIAZ DE
MENDIBIL, LOREA ZURIMENDI.

MAKETAZIOA:

ALEX BADILLO ETA ASIER PZ. DE KARKAMO

KOMIKIA ETA MARRAZKIAK:

IÑIGO SARASOLA, AITZIBER IRIONDO
PUBLIZITATEA:

KARLOS FDEZ. DE BETOÑO ARGAZKILARIAK:

EDORTA SANZ.

KOLABORATZAILEAK:

TXIPI ORMAETXEA, JUAN JOSE KASTRESANA,
TXABI ARNAL GIL

INPRIMATEGIA:


GERTU KOOP. E. (ZUBILLAGA, OÑATI)



19

KIROLA

EUSKARAZ ERE EGIN
DAITEKE: GEUREKIN
MENDIRA, EUSKARRI...



Arabako Foru Aldundiko Kultura eta
Euskara Sailak diruz lagunduriko aldizkaria



Lege-Gordailua VI-582/92

ISSN: 1133-0988

Pedro Asua, 2 - 3.a
Tfno. eta faxa 22 21 53

gasteizko euskaldunen aldizkaria



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

agur eta zorion,



enko abad
IKASLEA



aina ibiarte
IKASLEA

1.- Uda izan da aurten gertatu izan zaidan gauzarik onena. Ekainan dena gaintitu eta oso ondo pasatu nuen Kanadara eginiko bidaiari.

2.- Aurten edozein ikaslek izan dezakeen desira daukat: dena gaintitu, Unibertsitatera joan, gidatzeko baimena lortu...

1.- Bizipen ugariko urtea izan dut. Jende berria ezagutzeko izan da onena. Inguruko batzuren heriotzak, txarrena.

2.- Neuk ere munduarentzako bakea nahi nuke. Neretzako, aldiz, ikasketak ondo eramatea, maitasuna, adiskidetasuna eta osasuna.

Gabon Jaiak ospatu bitartean, afari oparoak eginez, erregaluak eginez eta jasoaz, errealitate berri batekin topo egin dugu: urte berri baten hasierarekin 1998ko urtearekin, alegia. 1998ko lehen egun hauek, kontsumoa eta merkealdien giroa nagusitzen den unean, iazko balantzea eta etorkizunari begira ditugun desioak ezagutzeko aukera ematen digute. Oraingoan, UBIko zenbait ikaslerengana jo dugu hauen kezak eta egitasmoak ezagutu nahirik.

1.- ZEINTZUK IZAN DIRA IAZKO GERTAKIZUNIK ONENAK ETA TXARRENAK?

2.- ZEINTZUK DITUZU AURTENGORAKO DESIOAK?



nagore ceberio
IKASLEA



markel vigo
IKASLEA



enko madinabetia
IKASLEA



estibaliz markinez
IKASLEA

1.- Uda ezinhobea izan nuen, baina kurtsoa iritsi ahala, oporren zai berriz ere.

2.- UBIko kurtsoa gaintitu eta hauta proba egin ondoren, nahi dudana karrerara egiteko nota eduki nahi dut.

1.- Eskolakideekin eginiko ikasbidaiak gogoratzen dut, baita udarako festak. Osasuneko arazo batzuk izan nituen gauzarik okerrenak.

2.- Kurtsoa eta hauta proba arazo gabe gaintitu nahiko niuzke. Eta, batez ere, osasuna

1.- Lagunekin igarotako uneak izan dira gertakizunik onena. Kontrolen aurreko eta noten egunak izan dira txarrenak.

2.- Aurten zera nahi dut: nota ona atera, Biologia Fakultatean sartu, eta lagunekin une onak errepikatu.

1.- Ez dut urte nabaria izan, ikasketetan murgilduta eman baitut. Udan bidai ahaztezin bat egin nuen.

2.- Zoriontasuna ezezik nota onak eskuratzea ere gura dut. Eta ea behingoz karrera bat aukeratzen dudana!



Bacalao Giraldo

• Eguneko makailu gesaldia • Makailua eramateko prest
• 36 errezeta ezberdin
ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta erosotasuna zure esku"

Angulema, 2 - Tfnoa: 27 23 25 • Basoa, 6 - Tfnoa: 22 16 36 • Gorbea Merkatura - Zaldiaran • GASTEIZ



Olentzerok ikatza utzi zuen U.A.n

Ehundaka pertsona 24eko kalejiran

Hilaren 24ean, ohitura denez, Olentzerok gure hiria bisitatu zuen. Aurten, baina, ohi baino goizago hurbildu zitzaigun, Unidad Alavesa alderdi separatistaren egoitzan ikatza uzteko. U.A.k gabonetan banaturiko postaletan Olentzero gezurreta-koa, bizkaitarrek Araban bar-

neraturiko pertsonaia zela adierazi zuten.

Hori zela eta, benetakoa dela demostratu nahi izan zuen ikazkinak. Benetakoa, eta maitatua, ehundaka lagun izan baitzen Olentzerorekin U.A.ri merezitakoa ematen: Ikatza!

A.P.



Trikibertso

Trikitalde eta bertsolaririk onenak

Ekitaldi bitxi ederrak datozen hilabeteotan Principal Antzokiak jasoko dituenak. Bertsolaririk hoberenak eta Trikitalde esanguratsuenak, denak batera eta nahasita ariko dira Gasteizen. Xabier Amuriza, Andoni Egaña, Jon Sarasua eta beste hainbat punta-puntako bertsolariek, Imuntzo eta Beloki,

Maixa ta Ixiar edota Gozategi Anaïen doinueta jarriko dituzte beren ahotsak, porru-salda goxoan. Sukalderaino, beraz!

A.P.

OTSAILAK 5

Imuntzo eta Beloki / Egaña, Lizaso eta Peñagarikano

MARTXOAK 3

Maixa ta Ixiar / Amuriza, Jon Sarasua eta Elortza

APIRILAK 22

Gozategi Anaïak / Jon Enbeita, Sorozabal eta Mendiluze

Euskararen TXOKOKA

Salatu ditzagun euskarari eginiko erasoak, txalotu dezagun euskararen aldeko lana.

Argazkiak, salaketak, edota beste edozein informazio mota eskertuko dizkizuegu

Geu Gasteiz aldizkaria

Pedro Asua, 2 - 3.a

FAXA: 22 21 53

Bide Seinaleak

Gasteizko bide seinaleak gora eta behera, konpontzerik omen ez duen arazoa edo, hobe esanda, konpondu nahi ez dutena. Esate baterako: aparkatzeko ordutegiak zehazten dituzten hoiak (gaztelarazko 'vado'ak).

Jesus Marcosek

(Bide Publikoen Zerbitzuko buru) jakin badaki seinale guzti hauek gaizki euskaraturik daudela. Hala eta guztiz ere, bere horretan darrai gizonak!

Udaleko Euskara Zerbitzuak, idazki baten bidez, seinale hauek zuzentzeko eskatu dio. Alferrik, berre horretan segitzen baitu gure adituak.

- 'Hibi' edo 'Tbi' ibaiak zeharkatzeko pasabideari deritzo, baina inoiz ez 'debakatu' esan nahi denekoari.

- 'sabados/larunbatak' esaten duenean, noski, 'sabados/larunbatetan' jarri beharko luke.

- '8tik 20tara eta 14tara' jartzen duenean, '8etatik 20etara eta 14etara' jarri beharko luke.

Adibide hau ez da salbuespena. Halakoak barra barra ditugu Gasteizen.

L.K.



ZURE GUTUNEN, FAXEN ETA ARGAZKIEN ZAI CAUDE.
GARRANTZITSUA DA, BENETAN. ESKER MILA!

GASTEIZ
DIBUtec
Landazuri, 7 - Tel. 23 30 01

- Material escolar y de oficina
- PAPER BIRZIKLATUA
- Fotokopiak
- kolorez eta Zuri-Beltzean

Arte ederretarako... behar duzun guztia

PAPERTEGI TEKNIKA


ARTEPAN
Artisau
Okindegia eta Goxotegia

Jesús Guridi, 2 • Tfnoak: 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ

ZURE HARATEGIAK

Jose Luis
GARMENDIA
HARATEGIA-URDAITEGIA



ANDALUZIA13
☎ 28 79 42
GASTEIZ



SANTI
HARATEGIA-URDAITEGIA

PARAGUAY 17
☎ 270790
GASTEIZ

XABIER
AIZPEOLEA
HARATEGIA



Florida Azoka ☎ 13 24 48
2 eta 3
Abastos Azoka ☎ 26 78 97
2 eta 3
GASTEIZ



JOSEBA
HARATEGIA

PARAGUAY MERKATUA
10 ZENBAKIA
El Pilar auzoa • ☎ 25 66 89
GASTEIZ



**gure lurraldeko haragi
samurretan espezialduak**



Floridako altxorra !

35



adaka
madinabeitia

altzariak • apaindurak
Florida, 35 - Tfnoa: 25 93 59
GASTEIZ

AHOZKO KONTAKETAK



ARABAKO Etnografia Mintegiak Etnografia Bideetan Ikastaroa aurkeztu zuen, tradiziozko kulturaren zenbait alor aztertu eta ezagutzera emateko asmoz. Ikastaroa

ahozko herri literaturaren ikerketari eskeini zioten, eta antolatu eta eskeinutako hitzaldietan gure herriko siniskerak, mitoak, ipuinak, eta abarrez hitz egin zuten; hortaz,

lamiak, basajaunak... ere bertan agertu ziren.

Arabako Etnografia Mintegia 1985. urtean sortu zen, baina lehendik ere lan egiten aritu ziren

BEHIN BATEAN...

eta zoriontsu izan ziren betirako. Horrela hasi eta bukatzen dira ezagutzen ditugun ipuin gehienak. Baina badira ere abestiak, errefrauek, siniskerak, elezaharrak... herri desberdinetako kultura osatzen dutenak. Nork ez du inoiz Anbotoko Mariz, lamiez, basajaunez, gaitxotasunak sendatzeko siniskeriez... ezer entzun? Etnografia arraza desberdinak aztertzen dituen Antropologiako atal bat da, eta kulturak ezagutu ahal izateko, ahozko literaturaren azterketa egitea interesgarria litzateke. Horregatik, Arabako Etnografia Mintegiak Etnografia Bideetan Ikastaroa antolatu zuen, gure lurraldeko kulturara hurbiltzeko asmoz, eta abenduaren 10ean hasita 19ra bitartean hainbat hitzalditan parte hartzeko aukera izan genuen.

Artikulu honen bidez horren berri eman nahi dizuegu, interesgarria iruditutik baitzaigu ipuin, abesti, sinismen... horietatik atera daitezkeen ondorioak zuei helaraztea, gure kultura hobeto ezagutzeko garrantzitsuak direlako. Hona hemen gure kontakizuna.

OLARIZU MENDI

HERRIKO TABERNA

JOSE URUÑUELA
KALEAN

GASTEIZKO

IRUBIDE

RAMIRO DE MAEZTU
KALEAN

HERRIKO TABERNA

HERRIKO TABERNAK

ALDE ZAHARRA

"SAN FRANCISCO
JAVIER" KANTOIAN

Arabako Foru Aldundiaren
Kultur Kontseiluan.

GURE KULTURA AZTERGAI

Mintegi honek Arabari buruzko etnografia ikerketak egin eta horien emaitzen berri emateaz gain, gure lurraldeko kulturako zenbait jakintza hedatzea ere badu helburu.

Abenduan aurkeztu zigten ikastaroan hainbat hitzaldi eman zituzten eta azkenengo egunean solasaldi batean parte hartzeko aukera izan genuen. Helburua ahozko herri literatura

*"Basajaunak,
lamiak... evskal
lurraldean
bizitzeko jaio ziren
eta oraindik hemen
omen daude"*

geu gasteiz

aztertuz, elezaharrak, ipuinak, sineskerak... gure lurraldeko kulturaren bereizgarriak eta ezaugarriak ezagutzea da.

Ipuinak, abestiak, erre-frauak, mitoak, superstizio eta abarren bidez; hau da,

ahozko herri kondaketen bidez, kulturen elementu bereizgarriak ezagutu daitezke, eta baita talde etniko bakoitzaren ezaugarriak ulertu.

Kurtso honetako ardura-dunen asmoa, gure kultura mantendu eta ezagutzeaz gain, etnografia ikerketak bultzatu ahal izatea ere bada.

SUGEEEN URA SENDAGAI GISA

Egitarauaren lehenengo egunean Josemartin Apalategi Begiristain eta Joxe Arratibelen eskutik, biak Ataungoak, herri horretakoa den "Txomin ipurdi" kontuzaharra ezagutu genuen. Kontuzahar hau Arratibelek haurtzaroan entzun zuen, eta bere ikasle eta entzuleei igorri die. Garrantzitsua da belaunaldietan zehar kondaketak zabaltzea eta aztertzea.

Azterketa zabalago bat egin zuen Jose Maria Satrustegik. Honek herri ipuinez hitz egin baitzuen, eta berak bildutako ipuin eta kondairen esanahia aztertzen saiatu zen, denboran zehar kultura desberdinetan batzuetan ardura berdinak mantentzen direla ondorioztatuz. Adibidez, haurtzarotik gaztetasunera-ko urratsa azaltzen dituzten kondaketen berri eman zuen, edo heriotzarekin zerikusia dutenak; hauek bizirik dirauten kezka dira

eta kondaketa horiek adierazten digutenez, aspaldikoak edo betikoak dira.

Mintegian bideoak ikusteko aukera ere izan genuen. Eugenio Moresma Moliner, Huescako, batez ere Piriñio aldean zentratzen diren jaiak, erritualak, mitoak... aurkeztu zizkigun. Adibidez, aintzinean bezala, Trondedoko herritarrek sugen ura erabiltzen dute sendagai gisa; edo Santa Eulalia de Gallego herria, non aspaldiko erritual bat egiten duten, eta Santa Luzia egunean begietako gaixotasunez babesteko, begiak zilar kolorez margotu ohi dituzte. Beraz, oraindik bizirik dirauten siniskera ugari daude, eta hizlaria horietaz mintzatu zen. Sinismen hauen guztien artean sorginkeriarekin zerikusia duena oso gai garrantzitsua da, oraino ere horren inguruan erritual ugari baitaude.

ERLIJIOA KONDAKETETAN

Euskal bide jakobeetako ipuin eta kondaira ugari jaso ditu Felix Cariñanos San Millanek, eta horiek aztertuz euskal kultura ezagutzea errezagoa izango da. Honetaz guztiaz abenduan 16an emandako hitzaldian luze hitz egin zigun.

Baina ahozko tradizioan erlijioak garrantzia izan du. Antxon Aguirre Sorondok, Donostiarra, eta Euskal



G
GORETTI

ILEAPAINDEGIA

Korrieria, 14 MIKEL DEUNAREN PASABIDEA
Tfno: 12 08 88
01001 - GASTEIZ



GUREA

jatetxea

Konstituzio Enparantza, 10
Telefonoa: 24 59 33



Herriko bizimodu eta aztu-
rei buruz dozena bat liburu
idatzi duenak, aintzinako
ipuin eta siniskera kondai-
rak aipatu zituen, eta bertan
askotan santuak, birjiniak,
sendamenak, otoitzak...
agertzen dira; erlijioaren
eragina, nabarmena oso
gure herrian...

LAMINAK. BASAJAUNAK... EUSKAL HERRIAN

Koldo Amestoyk Euskal
Herriko mitologiak hitz
egin zuen, herrietako ipuin
eta kondairez. Hitzaldi
honetan Sugar aipatu zigun,
"Hau suzko suge haundia
da. Harritarteko zulo batean
sartu zenean, Mari Jainko-
sak, lurraren erregina zena,
ikusi zuenean harrera ona
egin zion... Topaketa hone-
tatik ur, haize, euri, ekait-
zak, eguzki eta ilargia jai-
oko dira, eta baita izadi eta
izakiak ere".

geu gasteiz

"Hitzaldi haretako
helburu nagusia
gure kultura
ezagutu eta
mantentzea da,
ahozko kontaketen
azterketaren
bidez"

geu gasteiz

Lamiak, basajaunak, jain-
ko eta ireluak gero etorriko
ziren hona bizitzera, eta
gaur egun ere Euskal
Herrian omen daude...

Beste kondaira batzuen
artean Koldo Amestoyk
Ibarxolarena aipatu zuen,
zeinak Euskal Herriko
lehen auzoa eraiki zuen
beste gizon eta emakume
batzuen laguntzaz.

Beraz, hitzaldi hauetan
ahozko tradizioaren bidez
guregana heldu diren ipuin,
kondaira, sineste eta aba-
rrez hitz egin ziguten. Ahoz
aho aritu izanak hainbat
lurraldetako ohitura, bizi-
modu eta jarreretan denbo-
ran zehar murgiltzeko para-
da eman digu.

Kondaira eta ipuinen
azpian gizakiak ulertzen ez
dituen gauzak azaltzeko

ardura hori agertzen zaigu.
Ekoizpen horietan indarre-
an dauden baloreak pertso-
nifikatuta agertzen dira.
Guztiak gure kulturaren
parte dira, beraz, gure
herriaren parte.

Itziar Martinez de
Santos

Susana Calleja



Peru 8
22 60 50

Jose Mardones 8
26 35 40

Arana 30
25 24 00

**EUSKARA
GALTZAKO,
AKABO
EUSKAL HERRIA**

izena eman

aek

J A T E T X E A

H I U A

Kutxillera, 26 tfnoa: 28 81 47
•GASTEIZ

Ajuria Eneako Itunaren eragina komunikabideetan

EHUKI TALDEA osatzen duten Leioako Gizarte eta Informazio Zientzien Fakultateko bost irakasleek idatzitako *Ajuria Eneako Ituna* mezubideetan: *Bakerako bidea ala aztoramen iturria?* liburua aukeratu du 'Arabera Kultur Taldeak' bere bideari ekiteko.

IZENBURUAK ADIERAZI bezala, Itunak hedabideek euskal gatazkaren inguruan egunero egiten duten erre-presentazioan eraginik izan ote duen aztertzen du.

José Ignacio Armentia, José Caminos, Marian González, Gorka Palacios eta Txema Ramírez irakasle-

ek bi urte luze lan egin dute 1976 eta 1996 urte bitartean argitaratutako bi mila artikululu, erreportaia eta editoriala aztertzen liburuan bildu dituzten ondorioak lortzeko. Lana egiteko ideia Euskal Herriko Unibertsitateetik gatazka eta Itunak gatazkan izandako eraginari buruzko inolako lanik egin ez zela ohartzean sortu zela azaldu zuten idazleek.



Txema Flores eta Jon Maia, 'Arabera'ko sortzaileak, eta Txema Ramirez, 'Ajuria...' liburuaren koautoreak Zuloan Irudian eginiko aurkezpenean.

EHUKI taldearen iritziz, komunikabideek (prentsak batez ere) paper garrantzitsua betetzen dute Euskal Herrian bizi den gatazkaren zirkoan. Txema Ramirezek liburuaren aurkezpenean adierazi zuenez, prentsa ez da errealtatearen bitartekari hutsa, egun gatazka bizi duen polarizazioaren islada baizik. Are gehiago, irakasleek komunikabideek euskal

zure euskal LIBURUDENDA

Plaza Berria, 14
Virgen Blanca, 1
Tfnoa: 23 16 79 GASTEIZ

berrikoia

Xabier

taberna

musika ona
eta giro
ezinhobeak

Kutxileria 23

KOADROAK
MOLDURAK
LAMINAK
MARRAZKIAK

zurbeltz

MAGDALENA, 2 • TFNO: 13 27 20

BITORIANO
ZUIA • ARABA
TEL. 43 00 73

☆-Z
TABERNA
RA
JATETXEA

axular

LIBURUDENDA

Arka kalea, 11 - 01005 GASTEIZ

gatazkan hartu duten jarre-rarkin zeharo kritikoak dira, haien ustez, zenbait komuni-kabide "azken urteotan pola-rizazioa indargabetu beharre-an, enfrontamentua areagot-zen saiatu direla" uste baitute.

ITUNAREN ZAINDARIAK

Bost egileen iritziz, komu-nikabideek ez dute hainbes-tetan aipatutako Ajuria Ene-ako Ituneko 14. artikuluaen esanahia ulertzen asmatu. Artikuluak tolerantzian elkarbizitza eta bakebideak lantzearen aholkua luzatzen die gizartearen arlo guztiei, baita komunikabideei ere. EHUKIkoek liburuan esaten duenez, "Itunak eskatutako-ri erantzuten ari direlakoan horren zaindariaren papera hartu du prentsak. Ituna, eta Itunarekin zerikusia duen guztia, ukitu ezineko gai bilakatu dute".

Komunikabideek gatazka sortzen duen nahigabea neur-ririk gabe erabiltzen dutela salatu du 'Arabera Kultur Taldea'k argitaratutako lehe-nengo liburuak; egungo ego-erak pertsonengan sortzen duen sufrimendua erabili arren, ez da neurri berean

erakusten. Adi-bide moduan, batzuen eta besteen dolaak duen tratamen-du desberdina aipatzen dute, "batzuen sufri-mendua beste-ena baino askoz gutxiago azaltzen baita telebistan".

Hamazazpi urtetako egun-



Ajuria... 'Arabera Kultur Taldea'ren aurreneko argitalpena da

karien analisia - Itunaren eraginez jarrera aldaketa egon den jakiteko aurrekoa ere aztertu behar baitzen- egiteaz gain, hiru elkarrizketa eta komunikabi-deentzako kode deontologikoa aurki daitezke liburuan. Mariano Ferrer, Herri Irra-tiko kazetaria, Jabier Salutregi,

Egin-eko zuzendaria, eta El País-eko Emilio Alfaro elka-rrizketatu dituzte egileek, kazetarien artean dagoen irit-zi aniztasuna isladatzeko.

Kodeak berriz, gatazka humanizatu, polarizazioa ekiditu eta iritzi aniztasuna bultzatzeko beharra gogora-tzen die kazetari eta komuni-kabideetako arduradunei.

Leire Lopez de Aberasturi

Arabako literatur beharren Arabera

Arabar literaturgintzak argialetxe berria du; "bertako idazle eta lanak bultzatzeko" helburuarekin jaio da Arabera Kultur Taldea, Jon Maia eta Txema Flores arduradunek bere lehenengo liburuaren aurkezpenean azaldu zuten.



Argialetxearen sorreraren helburua "Arabarekin zerikusirik duten gai eta idazleak bultzatu eta horientzako ateak zabaltzeko lan egitea" da. Arabera Kultur Taldeak euskaraz idatzitako lanei lehentasuna emango diela adierazi zuen Maiak, "Arabaren euskaraz argitaratzen diren lanen arloan dagoen hutsunea betetzen saiatzeko".

Bi helburuak, hala ere, zentzu zabalean hartzea erabaki dute argialetxe berriko arduradunek. Arabarekin loturarik duten liburu eta idazleak eta euskaraz idatzitako lanek lehentasuna izango badute ere, ez da derrigorrezkoa idazleak bertakoak izatea eta gaztelerazkoak ez dituzte printzipioz baztertuko.

Kaleraturiko aurreneko liburu saiakera izan arren, generoetan mugarik ez dute jartzen eta jenero guztiak lantzeko asmoa erakutsi dute Arabera Kultur taldekoek: eleberria, olerkia, saiakera...

L.L

Sei hilabeterako begien

bistatik kenduko gaituzu

bi lentila - kaxa eta soluzio bakarreko

beste bi pote 15.000 pta.n

eta gainera erloju bat opari



MENDIA OPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS

Andre Maria Plaza • Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
VITORIA-GASTEIZ

ZERBITZU OPTIKOETAN
1a

LARUNBAT ARRATSALDEZ
ZABALIK: 5,00 - 8,30

BAUSCH & LOMB

INFORMA ZAITEZ 900 34 35 36 TELEFONORA DEITUTA. IZAKINAK GUKATU ARTE.

HAINBAT DISKO ETA LIBURU HURBILDU ZEN ARABATIK

Liburuek eta diskoek jendez bete zuten Durango berriro

URTEZ URTE, egutegiak abenduan eskaintzen digun zubia aprobetxatuz, Gerediaga Elkar-teak Durango herria Euskalerriko hiriburu kultural bilakatzen du. "Euskal Liburu eta Disko Azoka"-k bere leku propioa betetzen du guztion agendetan. Hala ere, arabarron presentzia azoka-mahaietan ez da gehiegi nabaritu salbuespen batzuk kenduta.

Egia esan, Euskal Herriko argitaletxe eta disketxe haundienetarikoen jaioterria ez da arabarra eta gure sortzaileek, kasu askotan, horietara jo behar dute lanak plazaratzeko. Mil A Gritos disketxearen diskak, Erakunde publikoetako argitarapenak, Vital Kutxaren Antso Jakitunaren Fundazioaren lanak eta IKA euskaltegiko materialeak izan dira gure ordezkariak ehun eta hogeita hamar partaideren artean. Hala eta guztiz ere, seguraski, arabar askoren lana era anonimoan garatu da

beste enpresa eta kolektibo batzuen izenpean.

Azokako egunetan Durango aldera 125 mila pertsonatik gora hurbildu ziren. Inoiz baino jende gehiago bildu arren antolatzaileen esanetan bisitariak iaz baino gutxiago erosi zuten. "Iaz aurkeztu ziren nobedadeak puntapuntakoak ziren, egileei erreperatuz, behintzat" komentatzen zuen Antton Mari Aldekoa-Otalorak, Gerediaga Elkarteko lehendakariak, salmenta datuei azalpena emanez.

Dena den eta baieztapen honi kontra egiteko nahian, Joxe Azurmendi-
ren "Demokratak eta biolentoak" eta Joseba Sarrionaindiaren "Hitzen ondoeza" liburuak aleak agortu ziren azken egunetan. Hauekin batera Andoni Egaña eta Jon Sarasuaren "Zozoak beleari" eta Urtzi Urrutikoetxearen "Borroka galdue-tatik gatoz" salduenetari-koak izan ziren.

Diskoei dagokienez, Oskorriren "Marijane kanta zan" eta Su ta Garaldearen "Agur jauna gizon txuriari" izan ziren gehien saldu ziren diskak.

TABERNAREN

ARRAKASTA


Musikarekin lotuta, Azokako Taberna eszena-toki apropos bihurtu zen musiko askorentzat. Hogeita bosten bat taldek, aukera aprobetxatuz, bere lan berriak aurkeztu zituzten bertan. Pantxo

eta Peio, Kashbad, Javier Muguruza, Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoak, Lorelei... izen batzuk baino ez dira.

Tabernak, zeina diskote-ka zahar bat baitzen, musika taldeei ezezik antzezlanei eta ipuin kontalari-
iei ere harrera egin zien eta antolatzaileen arabera tabernak arrakasta lortu du haraino hurbildu zire-nen artean.

Hala ere, Antton Mari Aldekoa-Otalorak zalant-zak azaldu zituen Taber-narekin. "Ez dakit hanka sartu dugun ala ez, dato-rreren urterako udalak dis-koteka botatzeko proiekt-ua daukalako". Jendeak Tabernari erakutsi dion harrera ona kontuan har-tuz kokagune berri bat bilatzeari ekin beharko diote antolatzaileek, nahiz eta lan hau batere erraza ez den.

R. S. de Buruaga



geure sortzaileak

Gure sortzaileek ere bere lekua bete zuten Durangoko Azokan. Mahaietan Arabatik etorritako argitaletxe eta banatzaile kopurua txikia izan arren, gure lurraldean ere lan ederrak egiten direla jakin dezazuen GEU GASTEIZek liburu eta disko bilduma txiki hau ezagunarazi nahi dizue.

Gasteizko hondartzak
Xabier Montoia
295 orri. Susa




Gasteizko istorioa apur bat ezagutu nahi baduzu, hemen duzu oso liburu aproposa. Gerra zibiletik hona gertatutakoaren berri eskeintzen du autore gasteiztar honek bere bigarren eleberrian. Dena den, "Non dago Stalin?" eta aukezten digun liburu hau bera ez dira egin dituen lan bakarrak. Olerki beste hiru liburu -*Anfetamiña*, *Likantropo* eta *Narratien mintzoa*- eta ipuinez osatutako beste bat ere -*Emakume*

biboteduna- idatzi ditu.

Barne barnetik
Eusebio Osa

118 orri. X. Etxaniz, J. L. Ormaetxea eta P. Salaberri



Liburu honetan Eusebio Osa Arabako irakaslegoaren Formazioarako Unibertsitate Eskolako irakaslearen artikulu bilduma aurkezten zaigu. 1960ko hamarkada hasieratik 1993an hil zen arte idatzitako artikulu hauetan hezkuntza, hizkuntza, gizartea, kultura eta hainbat arlo ukitzen ditu Eusebio Osak izpiritu kritiko batez.

Ostegunak
Jon Arretxe
107 orri. Elkar



Bost ipuinek osatzen dute liburu dibertigarri eta umoretsu hau. Unibertsitateko ikasle garaia jorratzen du idazle basauriar honek bere azken liburu honetan. Oso harreman estua lotu zaio Gasteizekin, hemen bizi eta ikasi duelako eta hiriak berak seguraski eragin dio obra hau burutze-ko. Arretxe bidaizale amorratua da eta mundu zabal honetan bizi izandako gertaeraz bete ditu hainbat liburu: *Tubabu*, *Tuparen*

seme-alabak, Hakuna Matata...

Sabin Salaberriren lana
Araba eta Samaniego abesbatzak

Gasteizko Udala eta Arabako Foru Aldundia



Gasteizko kontserbatorioan irakasle daukagu Sabin Salaberri. Euskal musikak une ez aproposak bizi zituenean, bera ibili zen "Amets" taldearen inguruan, zeinarekin seguraski 60. eta 70. hamarkadetako Gasteizko gazteek dantzatu zuten. Araba eta Samaniego Abesbatzei esker lan honetan aurkeztzen zaiguna berak konposatu abesti arrakastatsuenak dira. "Agur zaharra", "Madalen

II", "Pakea"... abesti batzuk baino ez dira.

Zurrumbilo kaotikoa
Ekon
Mil A Gritos Records



Mil a gritos Records disketxe gasteiztarak aurkeztzen digun azken lana da Ekon taldeko "Zurrumbilo kaotikoa" diska.

Talde honen lehenengo lana da. Musika eta hitz gogorrez osatutako diska honek Soziedad Alkoholikak kideek sorturiko Mil a gritos Records-ek talde gazteen alde egiten duen apostua erakusten du berriro.

Raúl Saez deBuruaga

LA RIOJANA
jatetxea

on egin! EGUNEKO MENUA
ETA KARTA

Kutxilleria, 33 tfnoa. 25 02 39

ONGI ETORRI
xurrut

KUTXI 103
GASTEIZ


SAN FRANCISCO KANTOIA 4
-GASTEIZ-
PARRAL TABERNA
• ASTERTERO KONTZERBUK ANTZERNUAK
• JANOKI BEJETARIANOAK PINTAK

"Canciones Para La Resistencia" titulupean Benito Malasangre mirandarrak kalera atera zuen abuztuan bere estreinako diska. 1992. urtetik hona sorturiko hamairu abestik osatzen dute Victor Jara, Silvio Rodriguez, The Clash, La Polla edota Mano Negraren eragina azaltzen duen lan bikaina

BENITO MALASANGRE: musika eta erresistentzia



Benito Malasangre (Oscar) hitz zuzen eta gogorren idazlea da gehienbat, eta halaxe gertatu da bakarlari ibili den iraganeko urteetan. Hala ere, gaur egun aurkezpen berri bat eman nahi izan die bere testuei, jazz musikatik datorren eta elektriko bihurtu den laukote batekin elkartzuz. Batasun honen emaitza sendoa eta erakargarria agertzen zaigu "Canciones Para La Resistencia" diska honetan. Bluesak, ska-k eta rock-ak freskotasunez tindatu dituzte Benitoren betiko kantak. "Horas de Vida", "Podrida Moral", "Fumo Hachís" eta "Escuchando a los Clash" lerro hauetan esandakoaren lekuko dira.

Dena den, Benitok berak asetuko digu jakingura.

Zorionak, zure diska honek argi azaltzen baitu zirkuito komertzialeetatik kanpo bizitza dagoela.

Mila esker. Askotan galdetzen diot nire buruari ea zer nolako onarpen irizpideak dituen musika merkatuak. Hasieran argitaletxe bat topatzea zaila izango ez zelakoan geunden, baina, orain arte ez zaigu gurekiko interesa azaltzen duen inor hurbildu; ez disketxe handirik, ezta independentierik ere.

Zer da Benito Malasangre? Boskote egonkor bat, bakarlari baten izenordea...

Egonkorra orde, egongaitza esango nuke nik. Izenordēa? Ezta ere. Benito Malasangre nik sortutako pertsonaia da, eta beraz nirekin zerikusirik handia dauka. Boskotea beranduago eta kasualitatez osatu zen. Lehen hirukote bat ginen, eta jakina, kanta berdinean aurkezten genituen. Erakuntza guztiek

badituzte bere alde onak eta txarrak. Talde bat osatzen baduzu, zuzenekoak aberatsago bilakatzen dira, hitzek eta pertsonaiak berak protagonismoa galtzen dutelarik. Bestalde, boskotea bakarlaria kontratatzea baino garestiagoa izaten da. Hala ere, egia esan, bakarlari gisa ageriraldi eskasak izan ditut.

Bakarlari rockzalea al zara?

Beharbada bai, baina nik

uste dut erabili dituzun bi hitz hauek gaur egun nahaste handia sortzen dutela entzuleengan. Zer ote da bakarlari bat? Abestiak idatzi eta kantatzen dituen? Orduan, Los del Río edo Manolo Escor

geu gasteiz

"gure abestietan hitzak dira nagusi"

geu gasteiz



HARREMANETARAKO TELEFONOA, (947) 32.18.53.

BASERRITAR ERAKO ALTZARIAK
berreskuraturiko egurrez eginak
eta **OSAGARRIAK**

artisaan lanak
lorategi eta barrualdeko-protektuak
egiten ditugu

Herreria 38, behea tfnoa.: 25 25 03

01013 Gasteiz



San Antonio, 39



bar bakarlariak al dira? Nik uste ezetz. Bestalde, sistemaren kontra abesten dutenak bakarlaritzat jotzen baditugu, La Polla edota The Clash taldeak sail honetan sartu beharko genituzke, eta, era berean, "bakarlari berriak" delakoak atera; hauek euren sentimenduak abestien gai bakartzat baitituzte, eta gainera ez dira batere originalak!

Zergatik eskaintzen diozue abesti bat The Clash taldeari?

Gorriak direlako. Euren abestiek maiz alaitu gaituzte eta. Indarra eman zidaten

geu gasteiz

"uste baino talde gehiago gara Mirandan, tankera ezberdinetakoak gainera"

geu gasteiz

bizitzak dibertigarria izan behar zuen urteetan.

Ezkortasuna eta errealitatea batera azaltzen dira zuen hitzetan. Errealitateak etsita al zaitu?

Egun ez dago oso pozik egoteko motibo handirik. CCCPren desagertzea eta Europako Ekialdean gertaturikoak lurjota utzi gaitu ezkertiarrok. Lehen kapitalak sozialismoaren kontra jotzen zuen, eta gaur gizarte osoaren kontra jotzen dihardu, planeta osoaren aurka. Kontraesan honetatik iraultza berria sortu behar da. Garai triste eta jaiskorra bizitzen ari baikara. Agian denak pikutara joan beharko du mundu berri bat jaio dadin.

Merezi duten guztiei eskaini diezue kanta zaplasteko bat?

Ez, putakume askori ez diegu eskaini. Dena den, nik uste kritikak ez direla pertsonalak izan behar. Gehiegi luzatuko genuke elkarriketa hau izenak aipatuko bagenitu. Sistema gorrotagarria denez, gorrotoa sortzen du. Abestiak eskaini? Hobeto zaplastekoak jo.

Mirandako musika eta konpromezua bizirik al daude?

Nik uste baino talde gehiago gara Mirandan eta, tankera ezberdinetakoak, gainera. Hala ere, kontzertu gutxi gauzatzen ditugu, taldeen indarra ez da garatzen eta, ondorioz, indarra eta taldeak desagertzen dira. Konpromezuari dagokionez, sasoi latz batean bizi bagara ere, orain gutxi

Mirandako lau taldek kontzertu bat egin genuen Ebro ibaian zazpi tonelada arrain akabo zituen enpresaren kontrako herriko salaketari laguntzeko. Gau hotza izan zen arren pozik gaude lortutakoarekin.

Ska, blues-a, rock-a... Zein lur musikaletan dago sus-traituta Benito Malasangreren doinua?

Entzun dugun musika guztietan. Benitok tankera zehatzik ez du, baina, kontuz!, honek ez du esan nahi originalak oso garenik, bai-zik eta estilo guztietara hurbiltzen garela. Abestiak egiten ditugu, hitzak nagusi diren abestiak, hain zuzen ere. Musikari dagokionez, aldarrikatu nahi dugunari ondo badatorkio, edozein erritmo onartzen dugu; rock-a, punk-a, bossa nova, blues-a, tangoak, cha-cha-cha, edozein. Musikari asko ditugu gogoko, adibidez Silvio Rodriguez, The Clash, La Polla, Lou Reed, Caetano Veloso, Bob Marley...

Nola zabaltzen ari zarete "Canciones Para La resistencia" izeneko diska hau?

Ahal dugun moduan, gure esku dagoena aprobetxatuz, tabernen bidez gehien bat. Heldu berriak gara, hau gure estreinako diska da. Grabatzen ari ginenean ez genuen batere garbi nola gauzatu zabalketa eta,



MIKEL DELIKA

BEIRATE ESTUDIOA

Txikita kalea, 1
Tfno. 14 64 10
GASTEIZ

EDAN • JANTEGIA



ADRIANO VI, 15 • TFNOA: 24 68 53 - 22 33 10 • GASTEIZ

Karta betiko eta oraingo platerekin

**Eguneroko Menua
Betiko kazuelatxoak**

TEN YEARS AFTER

Cricklewood Green
Chrysalis, 1970



oraindik ere, ez dugu argi ikusten. Estudioan eta mila ale kaleratzean gastatutako dirua berreskuratzen saiatzen ari gara. Diskaren helburua, berriz, hasieratik bagenekien zein zen, eta zein den; taldea aurkeztea, disketxeetara eta irratietara bidaltzea, kontzerturen bat topatzea. Dena den, gure ahalbideek ez digute oso urrun joaten uzten. Itxaron beharko dugu ea norbaitek diska interesgarritzat jotzen duen. Diska bat bidaltzen dudana bakoitzean itsasora botila jaurtikitzen duen naufragoa datorkit pentsamen-dura.

Zuzenean zuen abestiek indar gehiago izango dute.

Bai, lagunek zuzenekoak nahiago dituzte. Gainera, Benito pertsonaia kontzertuetan diskan baino inportanteagoa da. Agerraldietan entzuleen jarrerak garantzia handia du, eta beti ez da espero duzuna izaten.

Gasteiztik hain hurbil zaudetenez, laster ikusiko zaituztegu hemendik?

Horretan gabiltza. Egia esan, ez gara oso finak kontzertuak bilatzen, ez dugu inor aspertu nahi, baina jotzeko irrikitan gaude. Gainera merkeak gaituzue. Beharbada norbaitek artikulu hau irakurtzen badu...

Txabi Arnal Gil

Betidanik Ten Years After (TYA) rock and roll taldea hiru izenei loturik agertu zaigu: "I'm Going Home" abestia, Woostock

jaialdia eta Alvin Lee kitarrajolearen trebetasunarekin, hain zuzen.

Egia da laukoteak Woostock-en ospea bereganatu zuela. Egia da jaialdi erraldoi hartan jotako "I'm Going Home" kanta berehala eta betiko taldearen himno bilakatu zela. Egia da Ten Years After-en ezaugarri nagusia Alvin Lee kitarrajoleraren arintasuna zela. Hala ere, taldeak elkarrekin emandako bederatzirteek beste opari musikal asko eskeini zizkiguten rockzale guztioi. Alde batetik, estudioetan grabatu zituzten zortzi lp-ak rock eta blues bikainaz beterik ditugu. Bestetik, zuzenean gauzaturikoa, "Recorded Live" izenekoa, kontzerturik aipagarrien artean izango dugu beti.

Baina azter dezagun gaur eskuetan daukagun "Crickewood Green" hau.

Baten batek, laukote honen lana ezagutzen badu,

galdetuko dio bere buruari ea zergatik aukeratu dugun 1970. urteko diska hau. Ten Years After-en onenatzat jotzen ote dugun, eta ea ez al gauden garai hartan Alvin Lee eta bere lagunek sortutako "Sssh", "A Space in Time" edo "Watt" lp-ak hau baino sendoagoak direlakoan. Saiatuko gara hiru galdera hauei erantzuna ematen.

Zergatik "Crickewood Green"? Gaur egun, zoritxarrez, kanta bilduma bat izateaz gain, berrargitaratutako TYA-ren lan bakarra delako (beharbada, diska honetan telebistak berpiztu duen "Love Like a Man" abestia egoteagatik egin dute).

Orain, hurrengo bi galderak batera erantzungo ditugu.

Ez, ez dugu uste hau Alvin Lee-ren taldearen diskarik onena denik; baina, onena ez den arren, bikaina delakoan gaituz.

Lp-a osatzen duten zortzi abestietan zehar rock and roll-a eta blues-a dira nagusi. Maila altueneko rock-a entzun daiteke "Sugar the Road",

"Working on the Road", "50000 Miles Beneath My Brain" edota lehen aipatu dugun "Love Like A Man" abestietan, alegia. Blues-ak, ordea, "Me and My Baby" eta "As the Sun Still Burns Away" kantei esker, eskuratzen ditu diskaren minuturik hunkigarrienak.

Eta "Crickewood Green" entzun ondoren norbait ase ez balego, taldeak abesti akustiko eta ederra oparitzen digu: "Circles".

Orain, eta bukatzeko, geuk zabalduko ditugu, diska dastatu eta gero, erantzun beharko dituzuen galderak.

Badakizue zergatik izan zen Alvin Lee, Hendrix eta Clapton-ekin parekatu 70. hamarkadaren hasieran?

Zergatik Ten Years After-ek osatu behar ote du talde ahazturikoen zerrenda?

Zergatik ez da berrargitaratzen taldearen lan osoa?

Azkenengo bi galdera hauen erantzunak guk, oraindik, ezin izan ditugu aurkitu. Saiatu zeuek!!

Ardatz itzulpen eta euskara zerbitzuak

Arana, 5 - 1 • Tfnoa: 945-26 44 32 • 01002 - GASTEIZ

PAPERDENDA
den-dena
biziriklatua
Zuhaitzi
OPARIK • INPRENTA LANAK • KARTOIZKO ALTZAIKURGINTZA
Kutxillera, 6 behe • 01001 GASTEIZ • Tñoa. 28 60 15



TALDEA GEU GASTEIZ Elkartearen sail bat dugu eta hemen gaukazue zuek guztioi nortzuk garen eta zeintzuk helburu ditugun helarazteko.

Euskalgintzan dihardutenek eta soziolinguistikan adituak direnek ondotox dakitenez, hizkuntza gutxi-tuagotuek bizirik iraun nahi badute beren hiztunen arteko harreman trinkoen beharra dute. Hauxe bera da euskararen egoera, hain zuzen.

Halako harremanen sendotasuna are beharrezkoa dugu Gasteiz bezalako kasuetan, hau da, hiri ingurune batean hizkuntza horren hiztunen pisu demografikoa urria denean. Hala ere, Gasteizko euskaldunak erdaldun elebakarrekin alderatuta proportzio txikia badira ere, multzo koxkorra da azken datu demolinguistikoen arabera: 18.000 inguruan. Beraz, aintzakotzat hartu behar dira talde honen garrantzia eta behar soziolinguistikoak.

Belaunaldi berrien artean euskaldunen kopurua nabarmenki hazten ari da. Ildo honetatik, eta azkenengo urte-

etako umeen eskolaratze zifrek adierazten dutenez, urte gutxi barru euskarak dakiten gazteak erdaldunak direnak baino ugariagoak izango dira.

Goraka doazen euskaldun horiek, baina, etxean edota hezkuntza sistiman euskaraz lortutako gaitasuna alferrik gal ez dezaten, euskaraz mintzatzen den ingurunetan txertatu behar dira. Horrela ez balitz, elebidun izakera horretan ezinbesteko atzerapausua jasango bailukete.

Arrisku hori -neurri batean, bederen- ekiditzeko asmoz eta Arabako gizartearen eskalduntze horri laguntza bat eskeini nahirik, euskaldunentzako topagune ludikotzat sortu zen GEUREKIN MENDIRA Taldea 1995. urtean.

Harrezkero, uda sasoian izan ezik, baina neguko eguraldi kaskarrari jaramonik egin gabe, hilero antolatu, burutu, burutu ohi eta burutuko dira mendirako irtenaldiak, hauen inguruan hainbat gazte eta nagusi bilduz.

1997/98 DENBORALDIRAKO EGITASMOA

Aurreko ildoari jarraiki, 1997/98 denboraldian ere hainbat txango aurrikusi dira: lehenengo bederatzia, igandeetan eta egun bakarrekoak; azkenengoa, aldiz, eta denboraldiari amaiera berezia eman diezaiozun, asteburukoa. Euskaltzale eta mendizale zaretan guztioi urtarilaren 18an Udalaiztera egingo dugun irtenaldira etortzera anima zaitezten, gure gonbidapena luzatzen dizuegu.

GEU MENDIZALE ELKARTE JATORRARI, BARKA ESKE

Txi pi

NORMALENA eta naturalena da ardia artaldearekin ibiltzea. Horrela behar nuen nik abenduaren 14an, taldearekin, Toloño bidean. Baina, badakizue, artaldean beti izaten da ardi beltz bat. Batean halabeharrak, bestean barneko harrak, inoiz harrikadak ardi beltz izatera eraman naute frankotan. Igande horretan gauza gehiegi nituen egiteko, eta nahiz eta egundoko "bixamona" izan (bezperako Retegi txiki-handiaren garaipena ospatzen eman

nituen ordu batzuk), goiz jaiki beharra nuen denetara iristekotan. Hala egin nuen. Goizeko 9,30etako hitzordua berantegi zitzaidan, nire kalkukuetan 9etarako goian behar bainuen, gero Maialen eta bere 7 lagunak ikus-entzutekotan. Beraz, hamarretakoa 9etan egin nuen, bakar-bakarrik. Baina nire izpiritua zuekin izan zen.

Barka, arren. Hurrengoan ez naiz "artalde"tik lekutuko; urtarilaren 18an Uda-

latzeko maldak elkarrekin sofrituko ditugu. Besarkada bat.

Eta horra, bolaluma ezaz, Toloño 2ko buzoian zuentzako uzterik izan ez nuen bertso(exkax)a:

Mendizale gogorrak zaretela baina, zoro honek lehenago hartua du gaina; bertsozale naizenez mendizale aina, orain banoa azkar entzuten Egaña.

EGOA LIBURUDENDA



LIBURUAK • MUSIKA • MATERIALE BIRZIKLATUA
Manuel Iradier kalea, 9-A Tnoa. 11 88 95

Argazki - Estudio
Erramun

Heraclio Fournier, 23
Tnoa: 13 71 02
01006

Libertad, 5
Tnoa: 26 19 91
01004



Zaldiaran Plaza, 10

22 65 64
GASTEIZ

EUSKARRI:

euskara eta kirola bateginik

IRAILEAN hasi zen Euskarrirentzat bere bigarren denboraldia kirol arloan. Pasa den denboraldiko lau taldeekin jarraitzen du konpetizio kirolean: Gizonezkoen futbola, 1. maila erregionala; emakumezkoen areto-futbola, herrialdeko mailan; emakumezkoen saskibaloia, 1. maila Senior; eta azkenik,, gizonezkoen saskibaloia, aurtan 2. maila Senior, iazko denboraldian igot baitziren.



JENDE KOPURUA

BI HILABETE PASA dira denboraldia hasi zenetik eta emaitzak kontutan izanik, lehengo urtekoekin konparatuz, asko hobetu dira, gizonezkoen futboleant eta emakumezkoen areto-futboleant, batez ere. Aurtan behintzat badirudi taula erdian geratzeko gai izango direla. Bestalde, saskibaloian oso talde onak dituela ziurtatu du Euskarrik.

Euskarri Kirol Elkarteak 50 jokalarik osatzen du eta hauei entrenatzaileak, delegatuak eta koordinakundeko lagunak gehitzen bazaizkie, kopurua handitzen da 60 arte. Zerbaki hauekin ezin esan daiteke kirol elkarte handia denik, baina bere asmoan dago talde gehiago sortzea; ez bakarrik futboleant eta saskibaloian, baizik eta beste kirolean ere.

Euskarriren helburua nagusia kirola euskaraz egitea da eta hori, Euskarri sortu baino lehen, Gasteizen ezinezkoa zen. Orain, bederen, euskaldunak direnek kirola egitean bere hizkuntza erabiltzeko aukera dute, bai konpetizio ofizialetan, zein aisialdian. Kirolaren bidez euskaldunon eragina gasteiztarroei sentiarazi eta hiritarren artean euskararen ospea sendotzea dira Euskarrik lortu nahi dituen beste helburuak.

Hurrengo pausua beste kirolean sartzen hastea litzateke: Herri-krossetarako Taldea eta Txirringaz ibiltzeko Taldea sortzea da Euskarri Kirol taldearen beste helburuetako bat.

Dena den, lehendabiziko kirola Euskarri Kirol Elkarteant 1995etik martxan dagoen GeuMendira Taldea izan zen, hamabostaldi mendi irteerak antolatzen dituelarik.



Arte Ederre

behar duzun guztia aurkituko duzu

pastelak
oleoak
akuarela

pintzelak
ikatxkiloak
kaballeteak

lientzoak
olioak
etabar

%10a
gutxiago

Arriaga
euskalgintza, s.l.

500 METRO KARRATU
PAPERGINTZA, INFORMATIKA
ETA OFIMATIKARI ESKEINIAK

San Anton Plaza 7-8 / Telf.: 26 90 33 - Faxa: 26 22 12
Billegia: Uritiasolo 2.2. Pabilioia 23 47 00 Fax: 23 49 14

ELEKTRIZITATEA

muntaia elektrikoak
automatismoak
girotzeko musika
eta segurtasuna

GURIA

Matxaria, 2.7. pabilioia • Tfnoa: 943 70 08 95
Faxa: 943 10 85 47 20600 EIBAR

Aspaldian bazkide txartela bete zenutenak barkatu eragozpen eta atzerapenak..., aurtan abian jarri gara dagoneko euskarriren berri izan dezazuen.

ARAZOAK

Baina dena ez da hain erreza izan. Lehen arazo nagusia jokalariai aurkitzea izan zen eta hau gaitutakoan, larriagoa izan zen egitekoa suertatu zitzaizen Euskarrikoei: entrenatzaileak. Dena den, muga guztiak pixkanaka-pixkanaka menperatuz, Euskarrik gogoz ekin zion lanari eta konpetizio ofizialetan parte hartzen hasi zen.

Beste arazoetako bat instalazioen falta izan bada ere, orain arte ondo moldatu dira: San Martingo zelaian, futbolekoak; Luis Elejalden, saskibaloikoak; areto-futbolekoak astero ezagutu ohidute polikiroldegi bat, federakundeak jarrita. Epe luzera hauxe izan daiteke Euskarrirentzat helburu nagusia: bere zelaia eta polikiroldegia edukitzea.

Hortaz, kirola euskaraz bizi nahi izatekotan, jakin ezazue Euskarri Kirol Elkartearen tokia duzuela.

Unai Uriarte.



bazkide kanpaina

AURTENGO denboraldia mar-txan dago, EUSKARRI Kirol Elkarte-ko taldeak hor ari dira kirola egin ez euskara zabaltzen. Baina "Euskara eta Kirola batekin" helburuari edukiera emateko ezinbestekoak dira bazkideak.

Kirolari eta bazkideak proiektu honen euskarriak dira, kirola euskaraz ari garen honetan biak oso garrantzitsuak baitira. Hori horrela izanik, hilabete hauetan bazkide kanpaina berriari hasiera emango zaio.

Kanpainaren helbururik nagusia "kirola euskaraz" leloa zabaltzea izango da. Euskaltzale guztiei zuzenduko zaie mezua beraiei laguntza jasotzeko. Zabaltze kanpaina honetan proiektu honen bazkideak izateko aukera eskeiniko da. Bazkide txartelak 1000 pezetakoak izango dira urte osorako.

Aurtan, bide berriak irekiko dira bazkide, kirolari eta elkarrearen arteko harremanak sendotzeko. Kanpaina bukatu bezain pronto, bazkide bakoitzari kide-txartela

bidaliko zaio. Honetaz gain, bazkideek hilabetero informazioa jasoko dute beraiei etxeetan. Era berean, aldizkari bat sortzea dugu helburu. Urtean bi zenbaki plazaratzea izango litzateke xedea. Alde batetik, denboraldiaren hasiera taldeen aurkezpena egiteko eta denboraldiaren amaieran emaitzen berri emateko.

EUSKARRI Kirol Elkarteak, hasierako urratsak ematen ari den honetan, aurtan pausu garrantzitsua eman behar du. Hau da, bazkideen arteko hartu-emanak sendotzea. Asmoak era askotakoak dira baina gauzatu ahal izateko denon partaidetza behar da. Bazkide, kirolari, entrenatzaile, laguntzaile eta euskaltzale guztiek behar-beharrezkoak baitira gauzak egiteko.

Aurrean dugu zenbait ideia; adibidez, entrenatzaile eskola, aldizkaria, erakusketak, hitzaldiak, mahainguruak eta abar luze bat. Dena egiteko dago.

JOSEBA GOROSTIZA



CEGASA
INTERNATIONAL
ALCALINA

MERKURIO-KADIMOAN
%0a

**CEGASA PILAK
INDARTSUENAK
ETA
EKOLOGISTENAK**

CEGASA TOP ENERGY ALKALINE

CELAYA, EMPARANZA Y GALDOS, INTERNACIONAL, S.A.
Artapadura, 11 - Apdo. 355
Teléf. (945) 12 95 10 - Fax (945) 12 95 14 - 01013 VITORIA

ABENDAÑO ikastolako neska arinak

Abenduan hiru korrika lasterketa inportante izan dira Gasteizen: Maratoi erdia, Gasteizko herri-krosa eta urteko azken eguneko froga, San Silvestrekoa hain zuzen. Horietan korrikalari kopuruak gora egiten du urtetik urtera, batez ere emakumezkoena. Gainera, atzetik datozen kirolari gazteak indartsu datoz, eta behin baino gehiagotan mutilen aurretik helmugaratzen dira. Hona hemen hiru adibide: Amaia Lopez, Rakel Estrada eta Amaia Barredo.



ABENDUAN hiru korrika lasterketa inportante izan dira Gasteizen: Maratoi erdia, Gasteizko herri-krosa eta urteko azken eguneko froga, San Silvestrekoa hain zuzen. Horietan korrikalari kopuruak gora egiten du urtetik urtera, batez ere emakumezkoena. Gainera, atzetik datozen kirolari gazteak indartsu datoz, eta behin baino gehiagotan mutilen aurretik helmugaratzen dira. Hona hemen hiru adibide: Amaia Lopez, Rakel Estrada eta Amaia Barredo.

Arabako kirola eta kirolariak unerik ederrenean ditugu egun. Alaves eta Baskonia Estatuko futbol zelaietan eta kantxetan puntako kirol taldeak direla erakusten ari diren bitartean, Martin Fizek eta Juanito Oiarzabalek beren markak hobetzen dituzte behin eta berriz. Hori



GASTEIZKO BATZOKIAK

ZAHAR SENDO ZINDO

ABENDANO

ERDIALDE

LAKUA

ZARAMAGA

"Korrika egiteko grina gurasoengandik datorkie"

geu gasteiz

gutxi balitz, hor daude gimnastak, Gasteiz Hockey Taldea... Dena den, emaitza horiek ez dira txiripaz suertatzen, atzetik lana izaten baita beti. Kirolariak txikitatik egin behar du lan, hutsik eta zarata handirik egin gabe, entrenamenduari ekin behar dio egunero. Biharko kirol izarrek egungo neska-mutilak ditugu, horietako asko bidetik geratuko dira, baina gaurko lana ez da alferrikakoa izango, kirolak izaera berezia lantzen eta bihar-koari aurre egiten laguntzen baititu. Horixe da eskoletako eta ikastoletako kirol ardura-dunen lana: Kirola eginez, biharko gizon-emakumeak lantzea.

Araban adibideak ugariak diren arren, geuk Abendaño Ikastolako hiru neskatilarengana jo dugu. Hiruak, adin berekoak (bederatzi bat urte) eta hiruk, korrikalariak.

Amaia Lopezek, Rakel Estradak eta Amaia Barredok, beste neska-mutil askorekin batera, eskolen arteko lasterketetan parte hartzen dute, emaitza ezin hobekak lortuz, gainera. Esate baterako, 20 korrikalari inguru partaide izan ziren Audioko

krosean, eta haiek lehen, bigarren eta bosgarren postuak eskuratu zituzten. Ez da marka txarra, are gutxiago, Amaia Barredok urtebete gutxiago duela aintzakotzat hartzen badugu. Korrika egiteko grina gurasoengandik datorkie, "gure gurasoak lagunminak dira, eta korrika egitea atsegin dute", Rakel hitza hartzen du orduan, eta argitzen digu irribarretsua, "nire aitari gustatzen zaio, baina loditu denez, korrika

egiteari utzi dio".

MUTILEN AURRETIK

Haiek ez dute esan nahi, baina mutil askoren aurretik helmugaratzen dira eta horien markak gaingitzen dituzte behin baino gehiagotan. Hala eta guztiz ere, mutilei ez diete hori gogorazten, "agian haserraten dira, eta gero beste gauza batzuetan haiek hobekak direla, eta gu harropuzak garesten esaten digute". Horrez gain, beren kategorian garrantzitsuenaz ez da irabaztea, ondo pasatzea baizik. Dena den, etorkizunari begira korrikalariak izan nahi dute hirurek, "Martin Fizen edo Maite Zuñigaren moduan" gaineratuz. Ildo beretik, korrikalariak izatea suertatzen ez bada, badaukate bestelako proiekturik. Rakel Estradak eta Amaia Lopezek futbolaria eta igerilaria izan nahiko



kide



kide

APAINDURA

Cercas Bajas, 27
Tfnoa: 14 41 95
GASTEIZ

lukete, Amaia Barredok, berriz, tabernari lana du gogoko.

Asteburuetako lasterketetan ezezik, asteko entrenamenduetan ere lan egin behar dute gure protagonistek, "San Martin auzoko pistetan egiten dugu entrenamendua, astean hiru egunetan". Txikiena den Amaia Barredo aitarekin ibiltzen da, ordea. Bere hitzetan, "larunbatetan Pradon egiten dugu korrika aita eta biok, hantxe Martin Fizekin elkartzen gara, bera ere hantxe egoten baita". Amaiak ez dio gezurrik, Prado korrikalariez gainezka izaten baita urte osoan, are gehiago, neguan, maratoiak eta herri krosak direnean. Gasteizen, esaterako, hiru izan dira abenduan: Maratoi erdia, Gasteizko herri krosa eta urteko azken egunekoa, San Silvestrekoa, alegia.

Korrika lasterketetan parte hartzen urtebete baino eman ez duten arren, korrilari gazteek hamaika sari jaso dituzte dagoeneko. Zenbat diren galdetzean, Rakelek, zenbatu ostean, erantzuten digu: "12, baina guztiak ez dira kopak, batzuetan dominak ere ematen baitizkigute". Amaia Lopezek, aldiz, ez du zenbatu beharrik, eta bitan pentsatu gabe, "15" dio. Amaia Barredo txikia isiltzen da. Orduan, hori ikusita, berriz galdetzen diogu: "Eta zuk, Amaia?", "nik, bi baino ez" argitzen digu. Orduantxe beste biek azaltzen digute: "Bai, baina Amaiak hiru lasterketetan bakarrik egin du korrika". Hirutik bi. Marka ederra, neska!!

GURASOENTZAKO OHARRAK

Halere, dena ez da arrosa kolorekoa, eta ikasle finak eta korrikalari hobeak badira

ere, badute kexarik, batzuetan beren aita-amekin hase-ratzen dira eta. Adibidez, gurasoek ez diote Rakeli lagunen etxeetara joaten uzten, orduan alaba eta aitaren arteko tirabirak azaltzen dira, eta nola ez, zigorra; hau da, telebista ez ikustea. Amaia Barredoren arazoak bestelakoak dira, ordea. Neba nagusiak Amaia jotzen du, eta hori gutxi balitz, aita semea zigortu beharrean, alaba txikia eta zintzoa zigortzen du. Beno, zintzoa Amaiaaren iritziz. Zigorra betikoa da, bakoitza bere gelara joatea, alegia. Are gogorragoa da Amaia Lopezen aita. Aitak Amaia zigortzen du gauean nebarekin hitz egiten duelako. Solasaldi horiek ez dira aitaren gustokoak, antza; ondoren zigorra izaten baita. Zigorra ez da gomendatzekoa, horrelakotan aitak goizeko hiru t'erdia arte telebista ikustera behartzen baititu seme-alabak. Amaiak alabaina zigor gogorra dela deritzo, "telebistan ez baitago ezer ordu horietan". Salaketak esan, eta agurtu genituen gure kirol izarrak. Haien zat kirola ondo pasatzeko aitzakia baino ez da, eta gazteak direla. Hori izan behar du kirolak: jokua, besterik gabe.

zen du gauean nebarekin hitz egiten duelako. Solasaldi horiek ez dira aitaren gustokoak, antza; ondoren zigorra izaten baita. Zigorra ez da gomendatzekoa, horrelakotan aitak goizeko hiru t'erdia arte telebista ikustera behartzen baititu seme-alabak. Amaiak alabaina zigor gogorra dela deritzo, "telebistan ez baitago ezer ordu horietan". Salaketak esan, eta agurtu genituen gure kirol izarrak. Haien zat kirola ondo pasatzeko aitzakia baino ez da, eta gazteak direla. Hori izan behar du kirolak: jokua, besterik gabe.

Ismael Diaz de Mendibil



MUEBLES Y DECORACION MEDRANO

PINTORERIA 45
TEL/FAX: 25 79 32
C/ PAS URITASOLO 3
TEL/FX: 13 68 61

**GEURE ERAKUSKETA GEURE
TAILERRAREN ESKULANEK
OSATZEN DUTE**

ARANBIZKARRA

**ZURE
AUTOESKOLA!**

Valladolid kalea, 16 28 28 39
01002 Gasteiz

JANTZI ETA OPARIAK

Kutxillera, 27
Tfnoa: 26 07 10
GASTEIZ



Liluratu egiten gaituzte. Euren plataforma oinetakoetatik botatako betile luzeko begirada sartu egiten da gure barnean... Ezpain gorri-gorri distiratsuak busti... Etengabe dantzatu eta jendearekin hitz egin... Gaueko ugazabak dira.

geu gasteiz
izartea

iñaki rodaballo

drag queen gasteiztar baten istorioa

URTE batzuetatik hona gauaren ezinbesteko bizilagun bihurtu dira Drag Queenak. Diskotekak eta festak alaitu eta piztu egiten dituzte. Emakumearen estereotipoa neurriz kanpo isladatu egiten dute; satorrak ez die orpoan joko, ez!

Drag Queen fenomenoaren sortzailenetariko bat Gasteizen Iñaki Rodaballo dugu. Iñaki Rodaballo Sobradun antzerki taldekidea ere bada. Gogoratu talde honek arrakasta handia lortu izan duela azken aldihonetan. Gaueko erregin hauek hobeto eza-gutu nahi badituzu, Rodari egindako elkar-riketa irakurtzea gomendatzen dizuet. Nik neuk, egia esan, ezin izan nion farre egiteari utzi.



Nola hasi zinen mundu hain berezi honetan?

Tabernetan lan egiten hasi nintzen. Han jendea toki hoietara erakartzeko beha-

rrak sortu zitzaigun, festak antolatu eta abar. Etengabe kezkutzen ginen ideia berriak sortzen, jendea alaitzeko. Gauzak horrela, ideia berrien bila zebiltzan Circu-

loko ugazabek Dra-gez mozorratzea gomendatu

ziguten. Drag fenomenoa Gasteiztik at oso zabaldua zegoen

Tu Invernadero
zure lore sortak

ALDABE 6, BEHEA
tfnoa: 14 43 63 - 01001 GASTEIZ

EUSKAL OKELA
LASAGABASTER
harategia eta urdaitegia

Portal del Rey, 24
Tfnoa: 25 56 90
GASTEIZ

jo eta ke
TXAPELARRI
TABERNA

KUTXI
kalean

geu gasteiz

"ondo pasatzea gustuko eta aurriritzirik ez izatea dira bi baldintza bakarrik Drag Queen bihurtu ahal izateko"

geu gasteiz

garai hartan. Eta noski, norberak barnean daraman aktore eta emakumea kon-

tuan hartuz, Ruben, nire laguna, eta biok lanari ekin genion. Festa izugarri arrakastatsua izan zen, Dragak Gasteizen ikusten ziren lehen aldia izan baitzen.

Gutxitan aritzen zara Drag Queen gisa, ezta? Ez da hori zure lanbide nagusia.

Bai, horrela da. Egon bada-go jendea, Drag-aren rola bereganatu egiten duen, gay direnak, alegia. Nik lan egiteko unean bakarrik pentsatzen dut horretan: makilatu, lumak jarri eta beste pertso-



fenomenoa

Gasteizen?

geu gasteiz

"Drag Queen guztiak ez dira homosexualak, nahiz eta gay direnek hobeto barneratzen duten euren papera"

geu gasteiz

naia bihurtzen naiz jendea olgatzeko. Beste era batera esanda, gurea harreman publikoak dira: dantzatu, jendearekin hitz egin, txantxak,... Jende tristea ere alaitu egiten duzu, zeuri buruz hitz egiten baitu, ondo ala txarto baina hitz egin. Lileragarria da, benetan.

Nola hasi zen Drag Queen

Ruben, laguna, eta biok aintzindariak izan gara, orain direla hiru urte inguru hasi ginen gai honetan. Gero jende asko egon da. Gaur egun lumak janzten dituen jende asko dago.

Arropa non lortzen duzue? Nondik ateratzen duzue arropa deigarri hori? Lagunei eskatuz, azoka txikietan lapurtuz, erosiz....?

Denetarik. Geu sortu. Kontratatzekoan eskatu edo ordaintzen dizutenaren arabera propio prestatu. Tarte-an dirutza baldin badago, merezi du hobeto prestatzea.

Nork bere Drag pertsonaia prestatu ohi du, zu zein pertsonaia izaten zara?

Ni Roda bilakatzen naiz, Iñaki Rodaballo deitzen bai-



e
g
u
n
e
k
o
m
e
n
u
a

IRVSTA
poteo eta pintxoak
ESPEZIALITATEA:
Patata tortila • Otartekoak

TABERNA

Mateo Moraza 19
Tfnua: 23 19 33
GASTEIZ

"gizon guztiok emakume bat dugu gure barnean. Apaindura eta jantzien bidez alderdi hori azpimarratu nahi izate dugu"

geu gasteiz

naiz, abizenetik sortzen dut ezizena. Ez dut estereotipo zehatzik, Drag itxuraz ateratzen naizen bakoitzean era desberdinean jokatzeko dut. Honetan, egia esan garrantzitsuena festako onena izatea da, liluragarriena. Festa batean soineko urdina eramanez gero saiatzen gara ez errepikatzen. Edo errepikatzeotan beste era batean prestatzen dugu. Inportantea ahalta gehien puztea da..

Drag janzen eta apaintzen zarenean, pertsonaia bat interpretatu egiten duzu soilik edo emakumezko bihurtzen zara?

Bi alderdiak, nik uste. Gay diren pertsonak barneratu egiten dute pertsonaiaren izaera. Gizonok, guzti-guztiok, emakume bat eramaten dugu barnean, eta apaindura eta pelukarekin alderdi hori azpimarratzen dugunean, paper bat antzeztu egiten duzu, baina era berean, pertsonaia horren izaera barneratu egiten duzu.

Dragi buruz hitz egiterakoan, nola izendatzen dituzu, gizonetzko edo emakumezko gisa?

Nik gizonetzko... Homosexualak edo ez... Geure kasuan gizonak gara, baina emakumezkoen estereotipoak azpimarratzen dituzten.

Zenbat denbora ematen duzu makilajearekin?

Ordu eta erdi, normalean.

Eta makilajea kentzen?

Hamar minutu.

Makilajea dirutza haundia erabiltzen al duzu?

Makilajea oso garestia da. Ni antzerkiaren "mobidan" nagoenez gero, antzerki taldeko materialeaz baliatzen naiz aurrezteko.

Drag papera hartzen duzunean, abestu egiten al duzu?

Ez, abesten. Tapiokan behin egin nuen, "espainiar festan"... Ruben eta biok "Azúcar Moreno" taldearen play back bat egin genuen.

Drag bihurtzeko, zer da ezinbestekoa?

Ondo pasatzea gustukoa izatea, eta aurreritziarik ez izatea!

Gizon guztiak izan al

daitezke Drag Queen?

Ez.

Drag izaki, asko ligatzen al da?

Bai, nahikotxo. Zenbaiti "morbo handia sortzen" dio. Baina bai neskak, bai mutilak; biak saiatzen dira gurekin ligatzen.

Zer deritzote familiak eta lagunek zure lan bitxi honi?

Amak ondo, eta lagunek izugarri ondo pasa ohi dute.

Inork ez dit uzteko eskatu. Beharrezkoa delako egiten dut.

Mundu horretan diru asko irabazten da?

Festa motaren araberakoa izaten da. Dena den, bai! Diru nahikotxo eskuratzen da.

Drag Queen guztiak homosexualak al dira?

Ez guztiak ez, ni bederen ez naiz gay.

Lorea Zurimendi.



KLASEAK

matematika
fisika
kimika
biologia
geologia
euskara

irakaskuntza ertaina
eta unibertsitatea

☎ 26 03 54

IPARRA

taberna

Giro ezin hobea!

Florida, 80
Tfnoa. 26 77 81

GASTEIZ

TXVSTA

TABERNA

ESPEZIALITATEA: **BAT ERE EZ**

Mateo Moraza kalea
GASTEIZ



GASTEIZKO ZUZERONEAK

ATZO GOIZEAN kanpoko bi lagun-en telefono deia jaso genuen.

Lagun hauek, Gasteiz ez dutela ezagutzen eta, hurrengo asteburuan hirira datozela diote. Ze tokietara eramango ditugu kanpotar hauek txunditu daitezten? Galdera horrek eta besteek burua astintzen digute. Hala ere, ondo dakizuenez, gogozko tokian aldaparik ez dago. Beraz, oraintxe bertan hiriko ibilbide zoragarri bat prestatuko dugu. Idei horrekin Antonio Fournies ikastolara hurbildu gara. Hori bai, hasi baino lehen, eta gure irudi ezinhobea mantendu ahal izateko lagunengan, ilea orraztu, ikas-mahaia txukundu, aulkitik txikleak deslotu eta logela eskobatu egingo dugu.



Hiriburu batekin hirian zehar ibiliko ginateke, non oso gauza politak daude. Karaokea, McDonalds, Mendizorrotza, lorategiak, "El Caminante", Konstituzio Enparantza, e.a. harro harro erakutsiko nieke.

FERNANDO, II URTE


Azalduko nien nola Ajuria Enean ibilbide bat dago, Armentiarra dijoana. Han jaietan barraskilo eta perretxikoak jaten dira. Gasteizko hainbat alderdi zoragarrak azaldu ezezik, hiri-

ko erakarpen haundientariko elementua ezagutaraziko nien, pintxo edo txitxizotzak.

KEPA, II URTE

Kanpotar hauek MacDonaldis, zinema, eta Txiki Parkera eramango nituzke. Orkestra

HARPIDETZA TXARTELA



Izena-Abizenak: _____

Kalea: _____ zkia: _____ solairua: _____ Kodea: _____ Herria: _____

Lanbidea: _____ Jaiotze data: _____ Telefonoa: _____

Kuota: **1.500 pzta. urtean**

Kontu korrantea:

entitatea

bulegoa

kontrol
zkia

kontu zenbakia

Pedro Asua, 2, 3 a 01008 Gasteiz tel / fax: 22 21 53



polit bat eta museoak ikustera joango ginateke ere. Zapa, Pinto, ...eta horrelako kaleak ez nieke erakutsiko, oso itsusiak baitira.

ZURIBE, II URTE

Alavés taldea ikustera joango ginen. Hala ere, beste munduko altxorrik ez baldin bada ere, San Mames edo Anoeta-rekin alderatuz, jokari izugarriak ditu.

Karaoke edo Zapa aldera joateari uko egingo nion; karaoken abesten duen jendeak benetan gaizki egiten duelako, penagarria da. Eta Zapa inguruan krestadun batzuk daude, papagaioak diruditenak.

IAOR, II URTE

Kordoi etxea bisitatu genuke, non erakusketa interesgarriak antolatzen dira. Bestalde, hiritarrok badugu beste elementu garrantzitsu bat, "El Caminante". Era berean azalduko nuke gauzarik politena Enparantza Berria dela, batzutan dendak jartzen baitituzte.. Halere ongitasun erresuma honetan egon badago

akats bat, galdu ahal zaitezkeela.

IXAI, II URTE

Jatorrizko hiru kaleen historia azalduko nien. Baita ere erakutsiko nien Floridan dagoen monumentoa, Araba Pabeloia, Taugrés taldea, eta "El Caminante".

DAVID, II URTE

Lagun hauek Enparantza Berrira, Armentia, Florida eta El Caminante-ra eramango nituzke. Hiri hau ingurukoak baino politago eta hangiagoa dela sinistezazko nien. "Ni zuetako bat izatekotan, hiri honetara bizitzera etorriko nintzen, festa ugari baitaude"- argituko nien.

VIRGINIA, II URTE

Nire iritziz Gasteiz oso polita da, eta den-dena erakutsiko nien. Parkeak, "El Caminante", museoak, igerilekuak eta Alde Zaharra bisitatuko genituzke.

AINZANE, II URTE

Leku ezberdinetara eramango nituzke: esate baterako Alde-Zaharrera patata-tortila jatera.

eta Txiki Park-era jolastera.

IAOR, II URTE

Futbol zelaiak, neska politak, museoak, makarrak, borroak, makineroak eta diskotekak ezagutaraziko nieke. Zortzi diskoteka daude, baina handiena DIEM da.

RAUL, II URTE

Lagun maitagarri hauek Katedral Berria, Alavés taldea, Taugrés eta bere sariak ezagutuko lituzkete. Amaitzeko hiriko festetako bideo bat ikusiko genuke.

MAITANE, II URTE

Kanpotar hauen aurrean Gasteiz kutsadura gutxiko hiria dela aldarrikatuko nuke, museo, ibai eta jai politekin hornituta.

JON, II URTE

Museoak, Araba Pabeloia, Katedral Berria e.a. bisitatuco genituzke

BLANCA, II URTE

Lorea Zurimendi



KANGEUROAK

GOIZEZ

Nekane	26 91 53	Lorena	27 10 13
Eduardo	14 21 99	Montse	26 78 12
Leire	27 32 81	Ainara	23 38 28
Lorena	27 10 13	Txaro	28 08 85
Ainara	24 04 42	Maidar	24 90 62
Ana	26 65 95	Arrate	25 64 01
Eriete	29 96 50	Patricia	13 93 37

ASTE BURUAN

ARRATSALDEZ

Oihana	25 30 35	Olatz	25 61 20
Aintzane	27 09 64	Montse	26 78 12
Iratxe	24 51 81	Arrate	25 64 01
Ainara	23 38 28	Patricia	13 93 37
Lorena	27 10 13	Leire	23 12 23
Patrizia	27 78 19	Jose Angel	27 62 14
Leire	23 12 23	Saida	26 58 05
Maidar	24 90 62	Idoia	24 47 79
		Maidar	24 90 62
		Belen	13 65 10
		Monika	13 86 21
		Itziar	13 86 21

GAUEZ

Esther	27 84 57	Maria Jesus	13 54 35
Idoia	24 47 79	Estitxu	25 99 60



LANDABURU AKADEMIA

KLASE PARTIKULARRAK euskaraz !!

BRIKOZALEA

UMM...
INTERESGARRIA
...

BRIGOMANIA

BAINA
IKASKETAK PRAK-
TIKAN JARTZEKO
TRESNAK BEHAR
DIRA...



BENO,
GOAZEN LA-
NERA!

Caja Vital K

gidoia eta marrazkiak: Iñigo Sarasola

GASTEIZKO UDALA



Ondokoetan badago euskaraz dakien langilerik

SAILA	ZERBITZUA	HELBIDEA	TELEF.
UDALETXEA	PRENTSA KABINETEA	Espainia plaza, z/g	16 13 37
	ZERBITZU OROKORRAK	Espainia plaza, z/g	16 13 08
	GIZARTEGINTZA (ARGIBIDEAK)	Espainia plaza, z/g	16 13 44
	GAZTEEN ARGIBIDE BULEGOA	Espainia plaza, z/g	16 13 30
	FUNTZIO PUBLIKOA	Espainia plaza, z/g	16 11 41
	IDAZKARITZA	Espainia plaza, z/g	16 13 20
	ARGIBIDEAK ETA ERREGISTROA	Espainia plaza, z/g	16 11 88
	ERROLDA	Espainia plaza, z/g	16 11 06
BULEGO TEKNIKOAK	BORONDATEZKO DIRU-BILKETA	Dato, 11	16 16 68
	ZERGEN GESTIOA	Dato, 11	16 11 33
	INGURUGIROA	Dato, 11	16 11 20
OSASUN ETA KONTSUMO SAILA (DEMSAC)	KONTSUMITZAILEEN INFORMA- ZIORAKO UDAL BULEGOA (KIUB)		16 12 40
UDAL ARTXIBOA	ARTXIBOA-ARGIBIDEAK		16 14 99
ETXEBIZITZA ETA HIRI BERRIKUNTZARAKO UDAL ERAGINTEGIA	ARGIBIDEAK		16 12 88
VILLA SUSO JAUREGIA	ARGIBIDEAK		16 12 70
HEZKUNTZA SAILA (IME)	ARGIBIDEAK	Fray Zacarias	16 12 16
EKONOMI SUSTAPENA		Fray Zacarias	16 12 11 16 13 48
GIZARTE ETXEAK	JUDIMENDI	Urriak 12 kalea, z/g	16 17 40
	LANDATXO	Santa Maria kalea, 4	16 16 82
	IPARRALDE	Zuberoa plaza, z/g	16 17 60
	ARIZNABARRA	ARIZNABARRA, 19	13 36 91
EUROPA GIZARTE-ETXEA	ARGIBIDEAK (KULTURA)		16 12 31
	BILTZAR ETA TURISMO BULEGOA		16 12 61
KONTZIENTZI ERAGOZ- PENERAKO BULEGOA			16 36 91



Z E
E L
R E
B B
I D
T V
Z N
Y A
K

gure kultura zaintzen

ARABAKO MUSEOAK

Arte Ederretako Museoa
Fray Francisco pasealekua 8
01007 Gasteiz
Tel. 945-181918

"Fournier" Karta Museoa
Bendaña Jauregia, Cuchillería 54
01001 Gasteiz
Tel. 945-181920

Arkeologi Museoa
Correría 116
01001 Gasteiz
Tel. 945-181922

Arma Museoa
Fray Francisco pasealekua 3
01007 Gasteiz
Tel. 945-181925

Natur Zientzietako Museoa
Jesusen Zerbitzarien kalea 24
01001 Gasteiz
Tel. 945-181924

La Hoyako Museoa
01300 Biasteri
Tel. 945-181918

Arabako Heraldika Museoa
Mendozako Dorrea
01191 Mendoza

Ekintzak
Ikustaldi gidatuak
Ekintza didaktikoak

Arabako Museoen ordutegia
Asteartetik ostiralera: 10etatik 14etara
eta 16etatik 18.30etara
Larunbatetan: 10etatik 14etara
Igande eta jaiegunetan: 11etatik 14etara
Astelehenetan itxita

ERAKUSKETA ARETOAK

Amarica Aretoa
Amarica Plaza 4
01005 Gasteiz
Tel. 945-181977

Kultura Etxea
Munduko landaren historian zehar
Urtarrilaren 26ra
La Florida ibilbidea z/g
01005 Gasteiz
Tel. 945-181944

Arabako Lurralde
Historikoaren Agiritegia
Miguel Unamuno 1
01006 Gasteiz
Tel. 945-181926

HITZA KULTUR ETXEAN

Urtarrilaren egitaraua

16 ostirala. Arratsaldeko 4etan
Kalamidadeen liburua
Juan Mari Irigoien

29 osteguna. Arratsaldeko 8etan
Aise
Jabier Muguruza
Kantaldia

30 ostirala. Arratsaldeko 4etan
Hitzarekin jolasean
Jesús Mari Irazu, Aitor Mendiluze

Liburutegia
Kontsulta Aretoa
Bideoteka
Mailegu Saila

La Florida ibilbidea z/g
Tel. 945-181944

Diputación
Foral de Alava

Departamento de Cultura y Euskera



Arabako
Foru Aldundia

Kultura eta Euskara Saila